

## **TRAMRAIL, S.A.**

### **Sozietatearen izena**

Tramrail, S.A.

### **IFK**

A95665410

### **Izaera**

Sozietate anonimoa.

### **Kontabilitate-araubidea**

Pribatua.

### **Aurrekontu-araubidea**

Gutxi gorabeherakoa.

### **Sorrera**

Sozietatea 2011ko azaroaren 7ean emandako eskritura publiko bidez eratu zen.

### **Sail-atxikipena**

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

### **EJSN**

4212 Lur gaineko eta lurrazpiko trenbideen eraikuntza.

### **Sozietatearen helburua**

Sozietatearen xedea hau da:

- a) Trenbide proiektuak egiteko laguntza teknikoko zerbitzuak ematea, barnean direla hiri trenbideen proiektuak, adibidez metroa, metro arina eta tranbia, trena eta trenbideak, eta horiek guztiak azpiegituren eta gainegituren eraikuntzarekin nahiz lineen kudeaketa edo eragiketarekin lotuta daudela.
- b) Trenbide ingeniartzako eta obren zuzendaritzako proiektuak idaztea, zeharka, horretarako titulazio nahikoa duten langileak kontratatuz, barnean direla hiri trenbideen proiektuak, adibidez metroa, metro arina eta tranbia, horiek guztiak azpiegituren eta gainegituren eraikuntzarekin nahiz lineen kudeaketa edo eragiketarekin lotuta daudela.
- c) Aholkularitza, garapen eta/ edo berrikuntza lanak eta trenbide araudiaren homologazioa, trenbideko gurpildun materialari aplikatuta, bai atoidun materialari nahiz motordunari eta autopropulstsatuari, bai eta material horren homologazioa.
- d) Mantentze prediktibo edo prebentiboko zerbitzuak eta/edo trenbideko gurpildun materialaren eragiketa zerbitzuak garatzea, atoidun materialari nahiz motordunari eta autopropulstsatuari dagokienez.
- e) Trenbideko gurpildun materialaren ustiaketa eta/edo eragiketa, atoidun materialari nahiz motordunari eta autopropulstsatuari dagokienez.
- f) Trenbideko azpiegitura eta lineen obra zibileko lanak, eraikuntza-lanak eta mantentze-lanak egitea, barnean direla hiri trenbideak, adibidez metroa, metro arina eta tranbia eta/edo trenbideak.

- g) Trenbideko lineen nahiz horien azpiegituren eta gainegituren mantentze, garbiketa, ikuskapen eta diagnostiko lanak egitea, bideari nahiz katenariari, tunelei, zubiei eta balastoari dagokienez.
- h) Trenbideko langileen prestakuntza, mantentze-lanetako langileak nahiz eragiketa eta/gidatze lanetako langileak direla ere.
- i) Trenbide sektorearekin zerikusia daukaten beste jarduera guztiak, diseinuaren, eraikuntzaren, eragiketaren eta mantentzearen arloetan.

### Sailkapena kontabilitate nazionalan


Sozietate ez-finantzarioak.

### Kapital soziala

400.000 €

### Kapital sozialaren osaera

Euskotren Participaciones, SA	% 20,00
FEVE	% 20,00
Transitia, S.L.	% 30,00
Comsa Emte, S.L.	% 30,00



### 2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	199.488 €
Ondare garbia	181.912 €
Negoio kopuruen zenbateko garbia	0 €
Batez besteko langile-kopurua	1

### Sozietatearen helbidea

Errekalde zumarkalea, 34, 1.a, ezkerra. 48009 - Bilbo (Bizkaia).

### Webgunea

[www.tramrail.es](http://www.tramrail.es)